2015eko MARTXOA

Igeldoko

46. alea

ORRI INFORMATIBOA

Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfonoa.: 943 31 30 30 Emaila: igeldokoorria@gmail.com

AURKIBIDEA

Herrian zer berri? / 2-3-4-5
Kontu kontari / 6-7-8-9
Handik eta Hemendik / 10
Denborapasak / 11
Iritzi artikulua eta Agenda / 12

KONTU KONTARI: KAFE-TERTULIA

ADIN EZBERDINEKO HAINBAT EMAKUMEREKIN

Kaixo herrikide!!!

Hemen dator urteko lehen alea. Bertan 2014 urtea amaiera eta 2015ko hasierako berriekin gatoz. Gabonak, batzar orokorrak, ihauteriak,.... baita ere duda asko sortu dituen armarriaren lehiaketari buruzko informazioa.

Martxoak 8, emakumeen eguna izanik, zerbait berezia egin nahi izan dugu oraingo ale honetan eta horretarako kafe tertuli batera gonbidatuak izan ziren herriko adin ezberdinetako hainbat emakume.

Oraingo hontan ere berrikuntzekin gatoz. *Denborapasa* eta *komiki* tira gehitu dizkiogu.

Ea gustokoa duzuen!

Kixmi ekintzaz blai!

Kixmi Aisialdi Taldeak pozik antolatu zituen beste behin ere Gabonetako urteroko ekintzak. Berrikuntza gisa, oraingoan antolakuntzaren nondik norakoak zabaltzen ahalegindu da, aisialdi taldeak antolatu arren herriko ekintzak direla gogorarazteko helburuarekin.

Ekintzak antolatzeak dakartzan hainbat erabaki mahai gainean jartzea erabaki du taldeak, herritarrek ere euren iritzia eman dezaten. Aldaketa eta proposamen ugari izan dira azken aldian eta, aurrerantzean, Kixmiko partaideek herritarrekin elkarlanean eraman nahi lituzkete aurrera. Jakitun dira aldaketek (abestiei edo eskeko ibilbideari dagozkienak, batik bat) lanketa eskatzen dutela, eta horren gainean hausnarketa egite aldera, egin dute lehen saiakera.

Aldaketak aldaketa, aurten ere emaitza onak izan dituzte Gabonetako ekintzek, eta Kixmik eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten haur, guraso eta gazteei.

Din-din elkarteari ere eskerrak eman beharrean daude, beste urte batez, barrako etekinak aisialdi taldearen baliabide-iturri izan daitezen aukera emateagatik; eta, bide batez, baita taldearen izenean bertan lanean aritu zirenei ere.

Beraz, mila esker guztiei!

Orain, hurrengo ekintzei begira dabil lanean Kixmi. Beti bezain gogotsu baina, dagoeneko batzuk jakingo duzuen moduan, maiz jendez eta denboraz larri. Beraz, herritar orori laguntzera eta parte hartzera dei egiteko ere aprobetxatu nahi izan ditu taldeak lerro hauek.

2014ko Gabon eskea

LEZKARRI ABESBATZAK URTEBERRIKO KONTZERTUA

Igeldoko San Pedro elizan, urtarrilaren 4ean, Lezkarri abesbatzak kontzertu ederra eta hunkigarria eskaini zuen. Bukaeran, bertan zeuden guztiek, Imanolek abesten zuen“ Mendian gora haritza” kantatu zioten joan berria den Eduardo Lertxundi lagunari.

.....

GABONETAN ERE, EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO EKIMENAK

Gabonetan ere, euskal preso eta iheslarien aldeko hainbat ekimen burutu ziren. Batetik, urtarrilaren 26an, Ernaik antolatuta, herriko presoen senideekin “kafe-tertulia” egin zen; eta bestetik, urte zaharrean kontzentrazioa eta topa egin ziren herriko plazan.

Bestalde, aurten ere, Sarek antolaturiko Bilboko mobilizazioan parte hartzeko autobusa bete egin zen.

.....

Herri Batzarra

Joan den otsailaren 15ean, Herri Kontseiluak herri-batzarra deitu zuen. Bertan, 4 urte hauetako balorazioa eta datozen herri kontseiluko hauteskundeei buruzko hainbat puntu eztabaidatu eta erabaki ziren.

Balorazioari dagokionez, arloka jarritako helburuak aztertu ziren, lortutakoak eta lortzeke geratu direnak. Norbaitek zehaztasun gehiago nahiko balu, herrikontseilua@gmail.com era idatzi edota bulegotik pasa daiteke.

Hauteskundeei buruz, berriz, hainbat gai eztabaidatu eta hausnartu ostean, honako erabakiak hartu ziren:

-Herri Kontseilua osatzen duten kide kopurua 7tik 9ra pasatzea

-9 pertsona izango direnez, 4 pertsona hautatzeko aukera izango da.

-Herritar baten proposamenaren harira, 16 urtetik gorakoen bozkatzeko eskubidea onartu zen Herri Batzarrean. Hautagai izateko, aldiz, 18 urte izan beharko dira.

-Parekidetasunaren aldeko bi neurri onartu ziren. Batetik, bozkatzeko garaian bertan 4 pertsona aukeratu daitezkeenez, genero bakoitzetik gehienez bi hautagai aukeratu ahal izango dira. Eta bestetik, kontaketa garaian, gehienez, genero batetik 5 hautagai eta beste generoko 4 hautagai bermatzen dituen sistema onartu zen.

-Hauteskunde eguna 2015eko maiatzaren 24a izango da.

-Hauteskunde Batzordea erdi osatu zen. Bertan, Herri Kontseiluko bi kide, teknikaria, eta herritarrak daude .Hala ere, baten batek bertan parte hartu nahiko balu, ateak irekita izango ditu.

Zine jana, "Pating Roller",...

Urtea jada hasi da eta, abenduko alean esan bezala, ekintza bereziak ere badatoz.

Urtero gisan, zine-janari hasiera eman zion Ieltxok otsailaren 22an. Bertan, "The Lunchbox", 2013.urtean Indian egin zen filma, ikusi zen. Hurrengo zine-jana martxoaren 22an izango da, arratsaldeko 19.00etan, Itsas aurre kultur etxean. Haurrentzat ere zine-merienda egongo da; apirilaren 17an, arratsaldeko 17:30etan.

Zine-janaz gain, "Patin Roller" arratsaldea, josten ikasteko oinarrizko ikastaroa, dantza-ikastaroa eta helduentzako oinarrizko ingeles-ikastaroa ere izango dira. Horien berri aurrerago emango dute, email zein kartel bidez.

Ekintza berriren bat bururatzen bazaizue, bidali zuen proposamena **ieltxokulturelkartea@ymail.com** helbidera.

.....

LANBIDEAK GAITZAT HARTUTA MOZORRO FESTA ESKOLAN

Urtero bezala aurten ere ospatu dituzte inauteriak eskolan. Aurtengo mozorroen gaia azken hilabeteetan lantzen ari diren gai orokorra izan da "LANBIDEAK". Mediku, erizain, rokero, futbolari, konpontzaile eta ofizio armatu ugari izan ziren desfilean, baita apezpiku bat, arrantzalea bere txipironera eta guzti… Irakasleak eta guraso batzuk ere mozorrotu ziren eta primeran pasa zuten. Txokolate beroa ere hartu zuten festari bukaera emateko. Datorren urtean, hala ere, guraso gehiago mozorrotzera animatzeko deia egin dute.

Bestalde, urtero moduan, aurten ere guraso elkarteak antolatuta hitzaldi pare bat izango dira eskolan, heziketari eta gurasoen kezka eta interesak lantzeari zuzenduta daude hitzaldiok. Lehena otsailaren 17an egin zen eta "Zer egin dezakegu gurasook seme-alaben harremanei laguntzeko" gaiaren inguruan aritu ziren. Gurasoen artean interesa piztu zuen hitzaldia izan zen eta 20 lagun inguru bildu ziren.Bigarren hitzaldia berriz, martxoaren 18an izango da, arratsaldeko 17tan eskolan. Gaia honakoa izango da "Nola landu sexuaren gaia gure haurrekin". Gonbidatuta zaudete guztiok!

ARMARRIAREN LEHIAKETA

Azkeneko orri informatiboan agindu bezala, Igeldoko armarri edota ikur berria aukeratzeko prozesuan beste pauso bat emanez, lehiaketaren oinarriak ezagutarazi ziren otsailean etxez-etxe banatutako txostenean.

Proposamenak aurkezteko azken eguna apirilaren 10a dela jakinda, eta nahikoa denbora izango delakoan, tarte horretan behar diren azalpenak eta argibideak emateko prest azaldu da Herri Kontseilua. Eta, oinarriak irakurri dituzuenen artean zenbait zalantza sortu direla eta, argibide orokor batzuk eman nahi ditu Herri Kontseiluak :

-Proposamena, gutxienez, zuri-beltzean aurkeztu beharko da. Eta koloretan izanez gero, koloretako originalaz gain, zuri-beltzean edo grisetan moldatu beharko da.

-Formatu digitalean aurkeztu behar dela eta, ordenagailuekin ohituta ez dagoenak edozertarako laguntza izango du, kultur etxera gerturatuz gero. Hala ere, eskuz egin nahi duenak, nahikoa luke, adibidez, ondoren eskaneatzea eta irudi digital bihurtzea.

-Ikurraren erabilera ezberdinak, adibide praktikoak (eskutitzak, boligrafoak, kamisetak,web orriak...) ez dira derrigorrez aurkeztu behar. Epaimahaiak kontuan hartuko ditu, balio positibo moduan.

-Gainontzeko eskakizun teknikoei dagokienez, esan bezala, edozer argitzeko prest dago Herri Kontseilua eta lasai jar zaitezkete harremanetan e-mail bidez, telefonoz edota kultur etxean bertan. Hala ere, epaimahaia ez da hain zorrotza izango eta ez du inor deskalifikatuko, garrantzi gutxiko edota konpondu litekeen eskakizun tekniko bat falta dela eta.

Besterik gabe, parte hartzeko gonbita luzatzen zaizue!!

Din-Dinen Batzar Orokorra

Otsailaren 22an batzar orokorra egin zen. 120 bazkideatik 20 bazkide gerturatu ziren soilik. Bertan 2014 urtearen balantzea egin zen, bai ekonomikoki eta baita bertan egindako ekintza, obra,.... ere. Ondoren hamaiketako goxoa egin zuten.

IGELDOKO GAZTIAK M8RAKO EGITARAUA PRESTATU DU

Martxoak 8aren inguruan, parekidetasuna landu asmoz, gazteak egitarau zabala antolatu zuten. Pala-txapelketa, hitzaldi edo mahai-inguruak… hainbat ideia atera ziren aurrez egin dako bilera batean, eta horiek guztiak antolatu eta aurrera eramateko, lantaldea sortu zen.

Ttonttorro hausnarketa prozesuan

Urte berriarekin batera jai batzordea ere martxan jarria dago iada. Badira bi urte Ttonttorro batzordeak antolakuntzaren inguruan hausnaketa prozesu bat hasi zuela. Aurten, honekin jarraitzeko asmoz, herriko eragile zein herriko kuadrila ezberdinekin bildu eta erabakiak hartzeko garaia dela iruditu zaie batzorde kideei.

Hala eta guztiz ere, norbaitek interesik edukiko balu jaien antolakuntzan parte hartzeko, jai batzordeak ateak zabalik ditu eta kontaktuan jarri zaitezkete **ttonttorro@gmail.com** bitartez.

Aurrerako jakinaraziko zaizkizue emango diren pauso ezberdinak.

ERREPORTAJEA: KAFE-TERTULIA ADIN EZBERDINEKO EMAKUMEREKIN

Nekane A. 1951, Nekane L. 1979, Larraitz D. , Ainara L. 1976, Laura I. 1970, Nerea L. 1984, Uxue R. 1999 eta Ainhoa G. 1980

Emakumeen egunaren harira, Orri informatiboa herriko adin eta belaunaldi ezberdinetako hainbat emakumerekin bildu da, igeldotar emakumeen egoera zertan den eta nola bizi duten jakin nahian. Mahai inguruan, giro ederrean kontu-kontari ibili ginen.

Martxoak 8an Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzen da. Munduko txoko askotan ospatu ohi da egun hau eta toki zein garai ezberdinetan aldarrikapen ezberdinak batu izan zaizkio egunari. XX. mendeko lehen hamarkadetan izan ziren egun honen inguruko lehen aldarrikapenak; emakumeentzako boto eskubidea, kargu publikoetara iritsi ahal izateko eskubidea, lanerako eskubidea edo berdintasuna hezkuntzan eskatuz …. Euskal Herrian, 1977.urtean ospatu zen lehendabiziko aldiz Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, Bilbon. Ordutik hona asko aldatu da emakumearen egoera, baina oraindik ere bada zer aldarrikatua.

LEHEN URRATSAK

Emakume baserritarren taldea hasi zen emakume-afaria antolatzen. Nolatan? Ze behar ikusten zenuten?

N.A.: orduan herriko talde bat EBEL-en ibiltzen ginen. Emakumeen egunaren bueltan, irteera edo egun-pasa eta bazkaria egiten genituen. Igeldotik kuadrila bat joaten ginen eta, denborarekin, pentsatu genuen: Zergatik ez dugu herrian egiten? Lehen urtea "frakasoa" izan zen; ez dakit, gaizkiulertua izan zen edo zer, baina jende gutxi bildu ginen. Baina, gaur egun, jende gehiago biltzen gara, eta gustora. Oker ez banago, 9.a izango da aurten.

> "zergatik ez dugu herrian egiten?"

EBEL emakume baserritarren elkartea izanda, afarirako deialdia agian "itxiagoa" zen hasieran, ezta?

N.A.: bai, orain irekiagoa da. Denborarekin, konturatu ginen beharbada emakume gehiago ere animatuko zirela, eta horregatik hasi ginen deialdi zabalagoa egiten.

Ez da erraza denenengana iristen, ezta?

N.A.: ez, ezta erraza, baina orain jendeak badaki.

Nk.L: orain "sartuago" dagoen kontua da. Egun oraindik ere emakume askok ez dute berdin ikusten, beraz, pentsa duela 10 urte... asko da.

Afaria antolatzearena EBELen "aitzakian" hasi zen, orduan, ala herritik bertatik ikusten zen behar hori?

N.A.: haren aitzakian, baina gugandik atera zen erabakia.“Hemen bagabiltza, zergatik ez dugu 'tanteatzen' herriko egoera eta horrelako zerbait antolatu?” pentsatu genuen han ibiltzen ginenok. Herri guztietan egiten zela entzuten genuen.“gaur ez gatoz afaria daukagulako herrian” entzuten genion bati eta besteari eta guk: “hara, guk zergatik ez dugu egiten horrelako zerbait?” Eta hortik sortu zen dena.

A.G.: gaur egun behintzat polita da; adin ezberdinetako jendea biltzea, normalean ateratzen ez direnak...

L.I.: gainera giroa oso ona izaten da, ezberdina.

A.G.: batez ere adin bateko jendea, gizonarekin bada bazkaritara joaten dena, baina bestela etxean geratzen dena....

N.A.: bai, horrelako jende asko dago; emakumeafariaren eguna erreferentzia gisa dute.

Nr.L: nik uste pausu hori ematea ere asko kostatu dela... emakumea afaritara etortzea.

Nk.L.: etortzea... senarrik gabe.

Nr.L.: hori da. Baina gaur egun, 10 urte eta gero, jendea etortzen da. Egunaz gozatu egiten dute.

Nk.L.: ni, adibidez, lehengo urtean joan nintzen lehenengoz; ikusten zen, emakume batzuk erabat “saltsan” sartuta zeuden, ume txikiak bezala. Jende jakin bat, herri-bazkarietan, udazken festan eta halakoetan, beti senarrarekin eta familiarekin ikusten duzuna, afarian bakarrik ikusteak harritu egiten zaitu.

A.L.: eta “baxoerdi” bat edan eta gaiztakeriatan ari balira bezala. -(barreak)-. Hasieran giroa “serioagoa” zen, “taldetxo” modukoak egiten ziren., eta orain? Orain izugarrizko festa da denentzat; denak, denekin.

L.I.: sortzen den giroa berezia da. Hala ere, nik afari horren harira, “debate” kutsuko iritziak ere entzun izan dut: “zergatik egiten da emakumeafaria?”, “Gizonezkoen afaria egingo balitz zer pentsatuko zenuke?”eta halakoak.

A.G.:egia esan, niri ere zalantza sortzen didan kontu bat da. Egia da gizonezkoen afaria egingo balitz gaizki irudituko litzaigukela. baina zergatik? Berdintasunean bagaude, ez?

“debate” kutsuko iritziak ere entzun izan dut

Emakumeen afaria zergatik egiten den izan beharko genuke kontuan, ez duzue uste? Gizonek ere behar hori izango balute egingo lukete baina, egunerokoan, ez da kasua... ez?

L.I.: hori da. Lehen esaten genuena, zenbait emakume bakarrik (senarrik gabe) ikusteak harritu egiten gaitu eta hori gizonekin ez da gertatzen.

A.G.: nahiago nuke hemendik 20 urtera afari horren beharrik ez balitz, emakume guztiak bakarrik ateratzen direlako eta elukelako zera hori. Baina momentuz...

A.L.: orduan, beharra baino gehiago, aitzakia bat gehiago izango da. Ari da, pixkanaka, izaera “sinboliko hori hartzen ere...

MUGIMENDU BERRIAK

Martxoaren 8aren bueltan, gazte-mugimendua ere hasi zen zerbait egin nahian; esaterako, pala-txapelketa mixtoa. Herriko festetan ere emakumeek badute palan aritzeko aukera, baina afariaren kasuan bezalaxe, modu “paraleloan”

Nk.L.: bai, festetakoak “garrantzia” handiagoa du, orduan hor ezin duzu hori sartu. Entrenatzeko garaian bertan ikusten da hori; neskak entrenatzen ari badira mutilak atzetik, presa sartuz, “molestatzen” ariko bagina bezala. Beraz txapelketan sartzeko, oraindik... uff. Eta hasiera batean, mixtoak ziren...

Nr.L.: hor, hala ere, aurrerapausu bat egon da. Nork bere errealitatea ere ezagutzen du. Nik nire burua ez dut gai ikusten “mazizarekin” jokatzeko eta alternatiba gisa proposatu zen “tenisekoarekin” jolastea; Azken batean, nik uste, emakumearen egunaren harira antolatutako txapelketak baduela festetan izaten den “lehiakortasun” hori saihestu eta festa giroan eta elkarrekin, parekidetasunean, gozatzeko helburua eta ez sexu aldetik bakarrik, entrenamendu aldetik eta indar aldetik ere pareko izatea bilatzen da.

A.G.: nik uste modu naturalean gertatu dela. Azken finean, festetakoa, “itxi” ere ez da inoiz egin, inoiz ez da debekatu.

Debekurik ez, baina jarrera kontuei erreparatuta, nesken bikote batek edo bikote mixto batek parte hartzea erabakiko balu, zein erantzun edo jarrera jasoko lukeela uste duzue?

A.L.: azken urteetan, nik, adibidez, nire mutilarekin jokatu dut. Ez dira bikote asko izaten, eta ni izaten naiz neska bakarra; eta baziren bikoteak "partidua jokatzeak merezi du?" galdetzen zidatenak eta nik:"ba bai, nik jokatu egin nahi dut". Gero denak ziren 30-6, 30-4... baina ni, frontoira joaten nintzen eta jokatu egiten nuen.

Nr.L.: futbol-taldea atera zenean ere, gauza bera gertatu zen. Batzuek ondo hartu zuten, eta beste batzuk, berriz, "zuen kontra jokatzea partidua irabazi eta finalean egotea da" zioten. "Bueno, baina guk ezin dugu parte hartu?" "Partidua irabaztera bakarrik zatoz edo ondo pasatzera eta festa giroan parte hartzera?" Lehiakortasunaren ikuspuntutik gizonezkoen arteko lehia pareko ikusten da eta, emakumeak sartzen badira, jakintzat ematen da irabazi egingo dutela.

Eta "jakintzat emate" horren atzean ere ez al dago jarrera bera? Biak nahasten dira, nolabait...

Nr.L.: jolastera banoa, ni ere irabaztera noa; nire ahaleginak egingo ditut, baina badakit non dauden nire mugak. Gogoratu, adibidez, futbolean egin genuena: mozorrotuta eta "katxondeoan" atera ginen, baina besteei txapelketa festa giroan egiten dela gogorarazi nahi genielako; urtero daude lesionatuak

A.G.: "katxondeoa" izan zen, bai, baina agian gu sentitzen ginelako horrela,ez? Nik uste gure burua ere ez dugula serio jarrita ikusten askotan. Nire ustez, gure aldetik akatsa egon zen horretan.

Nr.L.: berriz ere taldea osatu genuenean, kamixeta eta guzti, entrenatuz, serioago hartu genuen, parte hartzeko esfortzua eginez. Batzuen komentarioak entzutea ez zen atsegina izan. Eta askotan esaten dugu, agian mixtoak izatea exijitu behar dugula; baina jakina, gero guk ere erantzun egin behar dugu;.

Palan bezalaxe, ez du merezi exijitzea, gero gehienek "ni mazizarekin ez naiz ausartzen" esateko, ezta?

Nk.L.: baina askotan ohitzea da. Futbolean egiten baduzu eta ohitzen bazara... Gu palan tenisekoarekin hasi ginenean ere, hasieran ezin genuen; mazizarekin ohituta geunden eta arraro egiten zitzaigun. Orain alderantziz gertatuko litzaiguke, tenisekoarekin ohitu garelako. Orduan, azken finean, zein puntutaraino esan dezakegu "ezin dut"? Saiatuz gero, gehiago edo gutxiago kostako zaizu, baina ez zait iruditzen exijitu beharreko kontua denik; dago ala ez dago, onartzen da ala ez, baina exijitu... orain, behartu gabe ere, parte hartu nahi denetan arazoak daude, ba pentsa exijitzen hasita. Oraindik bada oso "itxia" den jendea Igeldon, eta exijitzen hastea atzerapausua litzateke.

EMAKUMEA HERRI-MUGIMENDUAN

Erreferentzia nabarmenenak diren ekintzak aipatu ditugu; baina, oro har, nola ikusten duzue emakumearen parte-hartzea herri-mugimenduan, gainerako ekintzetan, taldeetan, ohituretan...?

Nk.L.:. hasten zara batekin eta bestearekin hizketan eta denak kontzientziatuta daudela ematen du., eta gero, begira zer gertatu zen aurreskuarekin, neskak atera behar zuenean. Lehenengo urtean txistularia falta zela, jendea muturtuta. Tentsioa sumatzen zen.

A.L.: batzuek esan zuten neska ateratzen bazen beraiek ez zirela aterako. Eta aurten (lortu denean), izan dira bizkarra eman eta alde egin duten emakumeak ere.

Nk.L.: ni urduri nengoen entzun nituen komentarioengatik.

A.G.: aldaketa baten aurrean normala da. Ohitu egin beharko dugu. Naturalki, baina zerbait mugitu dugu, ez balitz mugituko...

Nk.L.: denean ari da gertatzen; eskean, etxean bertan, gogorra izan da aldaketa, emakumeak eskean ateratzen hastearena, ez pentsa.

L.I.: hara, nik gogoratzen dut nire aitonak lehenengo urtean ez zuen dirurik eman! Eta hurrengo urtean ni atera nintzen eta orduan pozik zegoen. Urtean zehar hitz egin genuen horri buruz eta ondo.

Nr.L.: nik uste ohitura guztiekin gertatzen dela. Oilasko jokoan nabarmena da, esaterako; " Santa Ixabel eskean ez etorri nire etxera, oilasko-jokoa kendu duzuenez..." eta horrelakoak entzuten dira. Eta emakumearekin, berdin, bere garaian. "Emakumeak ateratzen badira ez pasa nire etxetik". Oraindik ere batzuk ez dute erabat onartzen, baina egia da gaur egungo errealitatean, azken urteetan behintzat, emakumea atera izan ez balitz, ziuraski ohitura galdu egingo zela.

Eta herri-mugimenduan-eta, lehen Auzolan eta halakoak zeuden... emakumeak gutxi, ezta?

L.I.: bai, gehienak gizonezkoak ziren. Nire etxetik anaiak joaten ziren. Baina bazeuden parte hartzen zuten emakumeak ere, mugitzen zirenak.

A.G.: baziren emakume batzuk. Jai Batzordean ere baziren batzu-batzuk....

Emakumearen parte-hartzea handia da herri-mugimenduan, baina irudipena dugu, adin jakin batean "eten" egiten dela. Hala uste duzue?

L.I.: bai, egia da, umeak izatean, esaterako, emakumeok lotura handiagoa dugula.

Nr.L: baina orduan ez du zentzurik haurrek adin bat dutenean ere herrira ez etortzeak, ezta?

A.G.: agian lanketa bat egin beharko genuke horretan ere, ezta?

A.L.: askotan "monotonia" batean sartzen zara eta hori haustea ere...

L.I.: bai, urteetan ohitura galtzen baduzu... gero kosta egiten da bueltatzea.

Zenbateraino da emakumearen parte-hartzea, seme-alaben "aitzakian" bada?

Nr.L.: Bai eta ez. Kasu batzuetan, haurraren aitzakian bada ere, ekintzak antolatzera etortzen dira eta nolabait, "sozializatzen" dira eta hurbiltzen dira herriko dinamiketara. Emakume askok ekintza jakinetara mugatzen dutela beren partaidetza.

N.A.: bai, horixe pentsatzen ari nintzen. Hasi beharko dugu gure taldea mugitzen...askorekin hala egin beharra dago, mugiarazi.

A.L.: nik uste, aurpegia ematen, bileretan... emakumea ikusten dugula; eta gizonezkoa, berriz, "asto-lanean".

Nk.L.: baina iristen da puntu bat guk ere dena orokortu edo nahastu egiten duguna. Batzuetan zerbaitetan gizonak daude, momentu horretan gizonak daudelako eta kitto, baina segituan jartzen gara buruari bueltaka, zergati baten bila. "Gaizki pentsatzera" jotzen dugu...

BUKATZEKO (ONDORIOAK)

Elkarrizketarekin amaitze aldera, ondorio edo aipamen berezirik?

L.I.: aldaketa nabarmena izan da, esaterako, emakumea lan-mundura sartzea. Nire amaren garaian ia ez zegoen etxetik kanpo lan egiten zuen emakumerik... eta orain, berriz, ia denok egiten dugu. Eta eragin handia du. Nire amak ezkondu eta gero lanean jarraitzeko erabakia hartu zuen... baina gutxi ziren.

A.G.: nik esango nuke bagoazela aldaketa bidean. Belaunaldi bakar bateko aldearekin ez da berdintasuna bat-batean etorriko eta, obsesionatu gabe, naturaltasunez ikusi behar dugu. Obsesionatu gabe, baina erlaxatu gabe, aldi berean.

Laburtuz, ezerk ez duela izan behar ez obligazio eta ez debeku inorentzat, ezta?

Nr.L.: hori da, naturalki gertatzen den aldaketa izan behar du. Musean, esaterako, neska bakarra ni izaten naiz; hasieran beldurtuta egoten nintzen baina, orain, batekin eta bestearekin naturaltasunez aritzen naiz.

Nk.L.:: ohitzea da, bai batean eta bai bestean. Azken finean zuk aldaketa naturaltasunez eta errespetuz egiten baduzu, ondo joango da dena. Baina askotan edo defentsiban jartzen gara, edo beldurrez jokatzen dugu... eta, horrela, geronek sortzen dugu ezberdintasuna. azkenerako tentsioa sortzea da, eta beldurrez bazoaz... txakurrak beldurra sumatzen duenean nola? Ba halaxe.

A.L.: harresi bat saltatzera bagindoaz bezala,... aldaketak ere baloratu egin behar dira, asko dira.

A.G.: batzuetan egoerak "artifizialki" ere sortu behar izaten dira, ordea, komunikabideetan eta... jendea kontura dadin.

U.R.: egia esan, 15 urte besterik ez ditut eta nahiko urrun geratzen zaizkit aipatu dituzuen kontuak. Duela 10 urte, 5 besterik ez nituen eta, beraz, ez nintzen gauza askotaz konturatzen; baina, esan duzuen guztiagatik, nik uste nabarmena dela aldaketa gertatu dela. Zertxobait sumatzen dut oraindik aipatu duzuenaren arrastoa, baina nik uste, horrela jarraitzen bada, aldaketa askoz ere handiagoak ere egin daitezkela.

Hassana Aalia

Saharako lurralde okupatuetako errealitate gordinari (beraien jatorrizko hizkuntzan hitz egiteko debekua, lanerako trabak, adierazpen-askatasun eza eta mobilizatzeko debekuak…) aurre egin asmoz, 2010ean "gdeim idzik" izenez ezagunak egin diren protestaldi indartsuak egin zituzten saharartarrek. Eraikitako kanpamenduetan 20000 lagun bildu ziren orotara. Marokok bortizki desegin ondoren, epaitegi militar batek bertan erresistentzia egin zuten gazteei bizi osorako zigorra ezarri zien.

Zigor horretatik ihesi etorri zen Hassana Aalia Euskal Herrira. Azken urteak Hernanin igaro ditu eta 2012an Estatu Espainiarrari Asilo politikoa emateko eskatu zion. 3 urte zain eman ondoren, ezezko erantzuna jaso du eta Estatuak 15 egun eman dizkio lurraldea utzi eta bere herrira itzultzeko.

Marokoren esku ez uzteko eta asilo politikoa emateko eskatuz, azken hilabeteetan mobilizazio eta ekimen handiak egin dira: 2000 pertsonako manifestazioa (Bilbon), hitzaldiak, elkarretaratzeak… besteak beste, hainbat alderdi politiko instituzio, eragile eta norbanakoren elkartasun keinuak (batzuk aipatze aldera, Donostiako alkatea Saharan izan da Hassanaren familiariarekin eta kultur eta kirol arloko herritarrek 10 minutuko bideoa osatu dute Hassanari babesa erakutsiz).

Herri-Galdeketen Erregelamendua

2013ko urrian, parte-hartze zuzenaren jardunaldietan, Donostian Demokrazia Zuzenaren mekanismoak bultzatzeko eskaera nabarmendu zen. Hori dela eta, parte-hartze prozesu bat jarri zen martxan berehala, eta bertatik eratu zen Demokrazia Zuzenari buruzko oinarrizko dokumentua. Horren harira, 2014ko azaroan Herri-Galdeketen Erregelamendua onartu zuen Donostiako gobernu batzarrak eta 2015eko urtarrilean, udaleko alderdi guztiek aho batez onartu zuten.

Erregelamendu horretan hainbat kontu daude aipatzeko, besteak beste, honakoak:

-16 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek izango dute erreferendum ez diren hiritar-kontsultetan parte hartzeko eskubidea.

-Alkateari dagokio erreferendum ez diren hiritar ekimeneko hiritar-kontsultak onartzea, Bozeramaileen Batzordearekin kontsultatu ondoren.

-Beharrezko sinadura kopurua:

*Hiri-eremu osoa hartzen duten kontsultetarako, baliozkotutako sinadura-orriak eskaintzen direnetik 16 urtetik gora dituzten pertsona fisiko erroldatuen %5en sinadurak beharko dira gutxienez.

*Beste lurralde-eremu bat hartzen duten kontsultetarako, baliozkotutako sinadura-orriak eskaintzen direnetik 16 urtetik gora dituzten eta eragindako lurralde horretan erroldatuta dauden pertsona fisikoen %8en sinadurak beharko dira gutxienez.

19. Korrika Badator!

2015eko martxoaren 19an Urepelen hasiko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. 11 egunez, gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hemeretzigarrenez, martxoaren 29an Bilbora heldu arte.

Ibilbidea kontuan harturik, hiriburuetatik honako egunetan igaroko da:

Martxoak 19
DONIBANE GARAZI
Martxoak 20 IRUÑEA
Martxoak 21 BAIONA
Martxoak 22 DONOSTIA
(goizeko 8:53tan sartuko da bertan)
Martxoak 28 GASTEIZ
Martxoak 29 BILBO
(Amaiera)

JEROGLIFIKOAK

DD

Zerk eramango gaitu urrutira?

ASMAKIZUNA

Iluntasunaren laguna argiaren etsaia, pilarik gabeko linternatxo alaia.

TXISTEA

Zer da umeak egiten duen lehen gauza uretara jaustean?
-Busti!!!

SUDOKUA

	4		6		7		2	
8								9
		2	5		4	1		
	7		8	3	5		6	
4	5						8	
	9		7	4	6		5	
		4	3		9	7		
7								5
	8		4		1		3	

7 EZBERDINTASUNAK

ERANTZUNAK

JEROGLIFIKOAK
Bideak

ASMAKIZUNA
Ipurtargia

SUDOKUA

2	3	6	1	7	4	9	8	5
5	9	4	8	6	2	3	1	7
8	1	7	9	5	3	4	2	6
1	5	2	6	4	7	8	9	3
7	8	3	2	1	9	6	5	4
4	6	9	5	3	8	1	7	2
6	7	1	4	8	5	2	3	9
9	4	5	3	2	1	7	6	8
3	2	8	7	9	6	5	4	1

7 EZBERDINTASUNAK

BA AL ZENEKIEN?

Bada Igeldoko harroketan Tximistarri izeneko kala bat. Bere izena bertan dagoen harkaitz handi bat zor dio: "Tximistarriya".. Garai batean harrobi bat bazen Tximistarri gainean eta idiak harriz kargatzen zituztenean, buelta Tximistarrian ematen omen zuten.

Harrobiko langileak bazkaltzera joan ziren batean, bueltatu zirenean lur jausi handi batek harrobia estali zuela ikusi zuten, harrobiaren bukaera izan zen.

Tximistarria zuloz beteta eta erdi paretik zartatuta dago. Harkaitzaren izenaren zergatia ez dugu ezagutzen…tximistak jotako harria ote?

Bertaraino Zingietatik behera edo Leku ederreko parking.etik kolektore zaharrera doan bidea eskubitara utzita iritsiko zara.

Paraje ederra!

HERRIKO AGENDA

MARTXOAK 7	16:30ETAN PALA TXAPELKETA MIXTOA; ONDOREN EMAKUME AFARIA ITURRIETA BERRIN
MARTXOAK 8	11:30TAN KAFEA HARTU ETA 12:00TAN AUTOBUSEZ MANIFA DONOSTIAN
MARTXOAK 8	19:00TAN KULTUR ETXEAN, "FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA" DOKUMENTALA ETA MAHAI INGURUA
MARTXOAK 22	ZINE-JANA. 19:00TAN KULTUR ETXEAN
APIRILAK 10	XXXVIII. LAPA SARIAREN HASIERA
APIRILAK 17	HAURRENTZAT ZINE MERIENDA. 17:30ETAN KULTUR ETXEA24
APIRILAK 17/24	XXXVIII. LAPA SARIA
APIRILAK 30	XXXVIII. LAPA SARIAREN AMAIERA

Igeldoko Herri Kontseilua

Laguntzailea:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián